

2012 ABENDUA 156 ALER

# Kaixo

*urretxu !*

2. orrian

## 32 PLAZAS DE JORNADA COMPLETA EN EL CENTRO DE DÍA

Arreta es el nuevo adjudicatario del servicio de atención

3. orrian

## EN MARCHA EL SISTEMA PARA LA GESTION DE EXPEDIENTES MUNICIPALES

KZ Gunea ofrece una amplia gama de cursillos y servicios

6. orrian

## UNA PLAZA EN HONOR A JOXEMARI LASA

El Ayuntamiento atiende a la petición vecinal

6. orrian

## Santa Lutzi, egokitutako aurrekontua, arrakasta bera

Aurtengo feria iazkoa

baino ia 20.000 euro

gutxiago kostatu da

**Kaixo urretxu !**

Urretxuko Udal Aldizkaria

# Eguneko zentroak 32 plaza oso izango ditu

**Aspalditik eskatzen ziren bi plazak eskuratu ahal izan dira Foru Aldundiarekin lortutako akordioari esker**

Bizi esperantzak gora egin eta populazioa ere era berean zahartu den heinean, adineko pertsonen zaintza eta bizi kalitate duin batzuk izatea gero eta garrantzi handiagoko behar bat bilakatu da. Gauzak horrela, Eguneko Zentroa bezalako zerbitzuak gero eta eskaera handiagoa izaten ari dira eta alde horretatik, aurrerapauso garrantzitsu bat emango du Urretxuk, bertako egoitzan egun osoko bi plaza gehiago bermatzea lortu baitu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lortutako akordioaren arabera.

Leku guztietan murrizketak zabaltzen ari diren garaiotan, zoriontzekoa da, beraz, Santa Barbara eguneko zentroak aspalditik eskatzen zituen 32 plazak bermatu izana. Orain arte, Aldundiak egun osoko 30 leku zituen eta Urretxuko Udala egun erdiko bi beste biren kargu egiten zen, baina hemendik aurrera, herrialdeko

instituzio nagusia egingo da egun osoko 32 plazan arduradun. Gainera, orain arte eskaintzen ziren beste zerbitzu batzuk, dutxa eta garbiketa kasu, ematen jarraituko dira. Zerbitzuak murriztu beharrik ez izateaz harago, egun osoko bi plaza horiek irabazi izanak lasaitasun handia ekarri du Udaleko Zerbitzu Sozialen sailera, azken urteetan eskaera zenbakia asko igo baita, itxaron zerrendak sortuz



## **Kaixo urretxu !**

Ale honetako laguntzaileak: Miren Castillo, Aritz Muñoa, Oihane Zabaleta, Jon Altolagirre, Aitor Otegi eta Dani Arrizabalaga.

Argazkiak: Luis Ángel Téllez eta udal artxiboa.

Lege Gordailua: SS/678/93

Koordinatzailea: Jon Ormazabal

Inprimaketa: ANTZA Tirada: 3.300 Ale

2012 ABENDUA / 116. ALEA

KAIXOK ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net) helbide elektronikoan.

Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en [kultura.ur@urretxu.net](mailto:kultura.ur@urretxu.net).



Hobekuntza hau garatzeko, urriaren hasieratik, Arreta S.L.-k darama Urretxuko eguneko zentroaren eta etxez etxeko zerbitzuaren esleipena. Bertako erabiltzaileentzat trantsizioa gogorra egin ez dadin, aldaketa guztiak oso suabe egiten ari dira, baina esleipen aldaketak bada-kartza berarekin zenbait eraldaketa edo hobekuntza.

Enpresa berriak lan egiteko filosofia berri bat ekarri du berarekin zaintzaile-auxiliarraren papera nolabait lehenetsiz. Gainera, esleipena ematerako garaian, oso kontuan izan ziren baita ere, zaintzaren kalitatea bermatzeko, erabiltzaile bakoitzaren erreferentziatzko auxiliar bat izendatu izana.

Era berean, eguneko zentroari dagokion programan, kontutan izan dira baita ere esleipena ematerako garaian, Arretak duen komisioko etiko, berdintasun plana eta ingurumen aldetik, Eskoscan ziurtagiria eskuratzeko duten helburua.

Etxez etxeko programari dagokionean tratu txarrak atzemateko zerbitzu bat izatea eta erabiltzailearen familiarekin parte-hartze batzorde bat osatzea proposatzea ere oso positibotzat jo da. Gainera, lehen pixka bat airean geratzen ziren zerbitzu honek bere baitan bildu behar dituen eginkizunak zehazteko ere balio izan du.

Baina gauden garai hauetan, zerbitzu guztiak ekonomikoki jasagarriak izatea ere inoiz baino beharrezkoagoa da. Ildo horretan, Arretak esplotazio kontu oso garbia erakusten du eta oso kontuan izan behar da, urteko aurrekontuari dagokionez, 30.000 euro merkeagoa den bat aurkezten duela. Eta hori dena, bertako langileei lehen zituzten lan baldintza eta lan hitzarmenak mantentzen zaizkielarik.

Zerbitzu hauen guztien tasak Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuek ezartzen dituzte.

# Santa Lutzi; eficacia e ilusión ante el saludable y necesario reajuste

**La optimización de recursos y el trabajo de los técnicos y brigadas del Ayuntamiento han permitido mantener el programa con un ahorro de unos 20000 euros**

El Ayuntamiento de Urretxu se ha aplicado esa máxima de que la «necesidad agudiza el ingenio» y la pasada edición de la Feria de Santa Lutzi ha sido el mejor exponente de que, a base de implicación e imaginación, se puede guardar la esencia de la fiesta de años anteriores, manteniendo el programa, pero ajustando los gastos a una nueva realidad que es palpable en todos los estamentos de la sociedad. En números redondos, el Ayuntamiento de Urretxu logró reducir los costes de la feria 2012 en unos 20.000 euros respecto a 2011.

Además del de nuestros baserritarras y ganaderos, la feria que cada 13 de diciembre arrastra a miles de visitantes a nuestros pueblos es uno de nuestros mejores escaparates y, con la ayuda de una climatología no demasiado adversa, este año sirvió para acoger de nuevo a esa marea humana que nos visitó, con la misma ilusión y servicios que siempre.

Para la mayoría de esos visitantes pasaría inadvertido, pero gracias a una serie de ajustes se han gastado 19000 euros menos, es decir, en torno a un 41,7%, que en 2011, de 45.459 a 26.225.

Por norma general, se ha reducido en 50 euros los premios de los concursos, pero eso sí, mantenido las dietas a todos los expositores que cumplieren los requisitos impuestos por la organización y con los habituales refuerzos especiales para los baserritarras de la comarca, como medida de equidad y para que acudir a la feria no les suponga ninguna pérdida económica.

En el apartado de los concursos de frutas y verduras, las principales reducciones han llegado desde las infraestructuras. Así, en vez de alquilar dos carpas que en 2011 costaron 6.119 euros, este año se ha alquilado solo una, para lo que se ha tratado de aprovechar

## AURREKONTUAK

Ekitaldia	2011	2012
Fruta eta barazki Sariketa	11.173€	9.609€
Ezti lehiaketa	889,79€	731,86€
Ardo lehiaketa	23.314€	11.584€
Zumarragarekin batera	7.664€	3.799€
Beste gastu batzuk	2.418,21€	501,14€
<b>GUZTIRA</b>	<b>45.459€</b>	<b>26.225€</b>

mejor la zona de arcos de la mencionada plaza y su prolongación. Además, analizando otras ferias, como la reciente Txerri Azoka de Zerain, se han podido cerrar otro tipo de acuerdos con Ayuntamientos como el de Idiazabal, que alquila este tipo de infraestructuras.

Otro tipo de pequeños detalles como no plastificar los identificadores de cada expositor ha permitido que los 8.173 euros que costó la organización de este apartado el año pasado haya quedado en 6.609 este.

En el concurso de miel, los gastos han sido bastante similares, aunque sí que ha habido una pequeña reducción debido a que el jurado este año lo han compuesto dos personas y no tres como en años pretéritos.

El exitoso concurso, catay feria de vinos de Rioja Alavesa, que tanta gente congrega en la plaza Iparragirre, ha sido otro de los focos de la feria que ha sufrido un importante recorte en su presupuesto con cambios de organización casi imperceptibles para los visitantes. Como en el concurso de miel, una de las reducciones parte del jurado donde, además de reducir un miembro del mismo, se ha suprimido la cena oficial y la noche de estancia en hotel de años anteriores. En este sentido, es muy de agradecer la receptividad de estos miembros del jurado, cuya dieta no sirve para cubrir los gastos que les supone acudir a Urretxu.

Otro ahorro significativo ha venido desde el apartado de infraestructuras. Se han mantenido la carpa exterior y las



haimas interiores que separaban a los distintos expositores, pero este año no se han montado las telas que hacían de barrera entre las distintas bodegas. Su alquiler y, sobre todo la posterior limpieza de estas telas, ha supuesto otro bonito pellizco. Este año tampoco se han comprado copas nuevas y se han recuperado remesas anteriores, hasta tres distintas. Todo ello, unido a otros detalles como la no edición de la revista conmemorativa han hecho que el presupuesto de este apartado haya sido de 12.084 euros, frente a los 22.084 del año pasado.

En cuanto al concurso de pollos y capones, se ha ejecutado también esa rebaja de 50 euros en los premios y la novedad ha radicado en la prueba de no instalar la carpa que otros años ha cubierto a los animales. Eso sí, entendiendo que el plumaje de las aves suele ser uno de los factores que se tienen en cuenta en las valoraciones de los premios, se han cubierto las partes superiores de las jaulas de las aves expuestas con placas de acetato que pueden volver a ser usadas en años posteriores.

Otro cambio que se ha dado ha sido la suspensión de la exhibición de animales que organizaba la asociación Carcamo de Zaratamo, que el año pasado costó 1.500 euros y su sustitución por una exhibición de aves, con un presupuesto hasta siete veces inferior.

Otro de los apartados en los que se ha dado una importante reducción de gasto ha sido en el tema de la publicidad en los distintos medios de comunicación. Por un lado, entendiendo que las distintas webs de los Ayuntamientos

pueden realizar la misma función sin coste adicional, este año se ha suprimido la web [www.santalutzi.com](http://www.santalutzi.com).

En un principio, también se eliminó toda la publicidad contratada en distintos medios de comunicación, si bien finalmente se mantuvieron algunas cuñas en las radios más cercanas y se contrató el reportaje largo de Urola Telebista. No obstante, pese a la ausencia de espacios contratados, la feria de Santa Lutzi ha seguido acaparando el interés de todos los medios –de hecho ETB le dedicó un monográfico de media hora en suprimir canal– en gran parte gracias a la labor de los técnicos y políticos municipales, que repartieron dossiers de prensa con todo tipo de detalles –datos y fotografías– y concedieron diversas entrevistas y ruedas de prensa.

## Iparragirre literatura saria, bi urtez behin

Santa Lutzi Azokakoa ez da bide hone-tan egin den aldaketa edo egokitzapen bakarra. Esaterako, 2010etik aurrera, lehen urtero antolatzen zen Iparragirre literatur sariketa bi urtez behin antolatzen da. Baina maiztasunaz harago, beste hainbat esparrutan ere moldaketak egon dira. Hala nola, argitalpenen arloan, lehen sarituekin hiru liburu argitaratzen baziren, etorkizunean bi baino ez dira izango; gaztele-ratzko sarituak eta euskarako sarituak (poesia, narratiba eta bertsoak). Lehen 13.068€ zirenak, 7250€-tara pasatuz. Sari eta epaimahaiko arduradunen dietak murriztuta ere, 1500 euro inguru aurreztea espero da.

# Espedienteen kudeaketa plana, udalaren erantzuna azkartuz

Herritarrek udal administrazioarekin dituzten harremanetan, espedienteen kudeaketa izan ohi da sarri gairik korapilatsu eta desatsegina. Burokraziak ezartzen dituen trabak gainditu eta bere egiturak modernizatu asmoz, Urretxuko udalak kudeaketa plan bat ezarri du bere egituran, tramiteak modernizatu, sistematizatu eta eguneratu asmoz. Dagoeneko, udaleko administrazio egitura guztiek espediente elektronikoa zabalik dituzte eta etorkizun hurbil batean, internetez, bizilagunek euren espedientearen unean uneko egoera ezagutzeko aukera emango dien aplikazioa eskuragarri izango dute.

2010. urtean indarrean jarritako legeak herritarrei euren espedienteen ingu-

ruko informaziorako sarbidea ahalbidetzeraz behartzen ditu Administrazioak. Horri erantzun bat emateko asmoz, Izfe-k aplikazio bat garatu zuen eta Urretxuko Udalak bat egin zuen egitasmo horrekin, Gipuzkoako beste 24 udalerriekin batera.

2011ko amaieran hasi zen programa hau martxan jartzen Urretxuko udaltxean eta lehen urteko esperientzia izan du. Hasiera honetan, udalaren baren egituretara zabaldu da eta egun egitura guztiko 29 postuek zabalik dute euren espediente elektronikoa -9 Udaltzaingoak, 6 Idazkaritzak, 5 Sustapen Sozio-kulturalak, 2 Kontu-hartzaileak, 3 Hirigintzak, 3 Zerbitzu sozialak eta 1 Art-xiboak-



Sistema berri honekin, hainbat dira bilatu diren diren helburuak. Legeari erantzuna emateaz harago, tramiteak sinplifikatu eta sistematizatzen jo da, bereziki, gestio unitateen erantzukizunak eta denborak zehaztuz eta sarri ematen ziren agiri nahaste eta galtzeak saihestea bilatuz. Etorkizunean espediente hauen gestio integrala elektronikoki egitea bilatzen da azken helmuga, kalitatezko sistema oso bat ezartzea delarik, beti ere, udal gestioan etengabeko hobekuntza eman dadin.

Ezarpenari dagokionez, 6 espediente definitu dira, eta tramiteak garatu behar dituzten langileek formakuntza ikastaroak jaso dituzte. Gaur egun espedienteekin lan egiten duten udal unitate guztiak martxan daude eta esan beharra dago guztiak nahiko ondo egokitu direla sistema berrira.

#### Bideratutako espedienteak (2012-01-01 / 2012-11-15):

- Hasitako espedienteak 397.
- Bukatutakoak: 199
- Bukatzeak: 198.

#### Tramiteak:

- Egindakoak: 2050.
- Eperik luzeena: 0 egun.
- Eperik luzeena 183 egun.
- Bataz besteko epea: 9 egun.

#### Espedienteen tramitazio egunak:

- Gutxiena: 0 egun.
- Gehiena: 191 egun.
- Bataz bestekoa: 46 egun.

Días de tramitación y números de expedientes						
Medio	Emp.	Ter.	Pdte.	Min.	Max	Med
Alta sum. de agua	10	7	3	0	5	3
Avisos, quejas y suger.	32	3	29	24	39	33
Ayudas ermer. social	24	18	6	0	102	68
Baja padrón municipal	33	22	11	26	185	99
Consultas urbanísticas	8	1	7	83	83	83
Licencia obra menor	44	36	8	15	191	72
Lic. obra m. tejados	12	7	5	14	67	32
Public anuncios y edi.	90	86	4	17	48	24
Sol. exención o bonif.	12	1	11	62	62	62
Sol. tarjeta aparcamiento	15	8	7	0	58	28
Subvención viajes	4	4	0	0	0	0
Subvenciones cultura	73	2	71	117	145	131
Subvenciones fachadas	1	0	1	0	0	0
Sub. política social	39	8	31	11	70	41
<b>GUZTIRA</b>	<b>397</b>	<b>199</b>	<b>198</b>	<b>0</b>	<b>191</b>	<b>46</b>

Atendiendo a la ley 11/2007, en vigor desde enero de 2010, que obliga a poner a disposición de los ciudadanos el acceso a los expedientes que tramite con la Administración, Izfe desarrolló una aplicación que atendiese a esa demanda y el Ayuntamiento de Urretxu se sumó a ella, junto a otros 24 municipios en Gipuzkoa.

La implantación comenzó a finales de 2011 y 2012 ha sido el primer año de experiencia interna. De momento, todas las unidades administrativas y 29 puestos de la estructura administrativa tienen abiertos expedientes electrónicos y el siguiente paso es el de dar acceso a la ciudadanía al sistema para el conocimiento del estado de sus expedientes, con indicadores de plazo y control ciudadano. El objetivo de este plan es el de sistematizar, simplificar y modernizar los circuitos de expedientes.



# KZ Gunea, birziklapen digitalerako eskolak

## Interneten debalde nabigatzeko aukeraz harago, ikastaro ugari eskaintzen dira Urretxuko bulegoan

Internet gehienon etxeetara eta baina sakelako telefonoetara heldu zenetik, KZ guneek bere hasierako helburua errotik aldatu dute. Oraindik jendeak sarean debalde nabigatu ahal izateko gune bat izaten jarraitzen dute eta badira horretara joaten diren lagun asko, baina hori baino askoz gehiago dira KZ guneak. Ildo horretan, erabiltzailearen profila dezente aldatu da azken urteetan eta gaur egun sekula ordenagailurik ukitu ez duen adineko jendea eta euren curriculum osatu nahi duten langabetuak dira zerbitzu hau gehien erabiltzen dutenak.

Urretxuko bulegoko arduraduna den Edurne Hernandezek azaldu zigunez, eskaintzen dituzten ikastaro desberdinak dira jendearengan arrakastarik handiena izan duten zerbitzuak. Ikastaro hauek debaldekoak dira eta esparru oso desberdinak hartzen dituzte, denak informatika eta batez ere, internetarekin zerikusia dutenak. Ikastaro hauek gaika antolatuta egoten dira eta bi orduko mintegi txikietatik hasi eta 20 orduko moduluetara joaten dira.

Gaiei dagokionean, oinarrizko internet, google aplikazioak, sare sozialak, irudi eta soinua, software librea eta administrazio publikoarekin egin daitezkeen tramite desberdinak hartzen dituzte.

Teknologiak aurrera egiten duen heinean, gero eta gehiago dira herritarrekin harremanak telematikoki egiten dituzten administrazio desberdinak. Gizarte Segurantzaren web orrian bizitza laborala ezagutzen, trafikoko web orrian gida baimenaren zenbait puntu ditugun edo isunen bat daukagun ikusi, liburutegiko maileguak berritu, udalean errolda agiria lortu eta aurreko erreportajea aipatutako udal espedienteen tramitazioa dira ikasi daitezkeen gaietako batzuk. Era berean, oraindik gehienontzat ezezaguna den Herritar Txartela ere bertan eskatu daiteke.

Gai hauetako formakuntza bertan ematen ez den arren, IT Txartelak lortzeko –zenbait programa informatiko-etako gaitasun agiriak– azterketak ere egin daitezke.



# Plazari bere izena emanaz omendu dute Jose Mari Lasa bere bizilagunek

**Labeaga 12 eta 14 atariak eta Goierri K.E.-ak elkarrekin egindako eskaerari erantzunez, Goierriko plaza bezala ezaguna zen guneari urretxuarraren izena jarri diote, bere heriotzaren lehendabiziko urteurrenean**

Hanka ezin okerragoaz ekin genion oraintxe agortu berri den 2012 urteari. lazko urtarrilaren 2an, inork espero ez zuen une eta moduan, herrigintzan denon eredu izan den Joxemari Lasak betirako utzi gintuen. Hasierako kolpea bakoitzak ahal izan zuen bezala barneratu ondoren, Urretxu osoak eta berak sortu, bultzatu edo bideratutako talde guztiek azkar ulertu zuten Jose Mari baldutako bidean jarraitzea zela egin da-kiokeen omenaldirik ederrena.

Hala, San Juan, Santa Anastasia, Santa Lutzi eta egun eta jai seinalatu guztietan, herrian ez da txistu edo dultzaina soinurik falta izan. Hileta egunetik hasi eta jaietako larunbatean egin zitzaion kontzertu-omenaldi erraldoira arte, kultur eragile guztiek urteetan emandako horretatik parte bat gutxienez itzuli nahi izan diote, maisu eta gidari izan duten horri.

Bere heriotzaren urteurrenean, ordea,

bere bizilagunek bultzatutako ekimen hunkigarri batek eman zion nolabait amaiera omenaldi zikloari. Izan ere, Labeaga 12. eta 14. atarietako bizilagunen, baita Goierri Kirol Elkarteko sail guztien eskaera bati jarraituz, «Goierriko plaza-txoa» bezala ezaguna zen guneari Joxemari Lasa izena ipini zitzaion.

Ekimen honen ingurukoak jakin asmoz, KAIXOK; bere bultzatzaile izan diren Labeaga 12 eta 14 atarietako eta Goierri K.E. arduradunekin izan da. «Momentu hartako sentimendua denona oso antzerakoa zen. Gure atarian hasi ginen baina ez zen gauza handirik esan beharrik izan denok ados ginen eta», gogoratu du Dani Arrizabalagak.

Hala, bi atarietan eta Goierri barruko be-deratzi sekzioetan asanbladak egin ziren eta denetan aho batez hartu zen Udalarri eskaera luzatzeko erabakia. «Pentsa zenbait kirolari izan ditugun, baina orain arte sekula ez zitzaigun burutik pasa ere

egin plaza edo kale bati bere izena jartzerik, baina Joxemariarekin bat-batean sortu zen ideia», azaldu du Goierriko Juan Luis Ayusok.

«Bere ibilbidea, gazte gaztetatik, eredu-garria izan da, gazteentzat eta ez horren gazteentzat. Zenbait eta zenbait gazteren irakasle izan da, txistuan, musikan dultzainan, erraldoiekin... Herrian ekitaldi kulturalen bat bazegoen, bera parte hartzen egongo zen eta bestela publiko artean. Gizon bat zen, egongo dira, gutxiago merezita, kaleren bati bere izena eman zaion asko», adierazi zigun Javier Andueza bizilagunak.

Herri honetan horren zaila den erabateko adostasunarekin, bizilagun talde honek Udalera jo zuen bere eskaerarekin. «Alkatearekin hitz egiten hasi ginen eta hasiera batean goizegi zela adostu genuen, halakoetan bihotzarekin erantzuten dugu eta pixka bat itxarotea hobe zela pentsatu genuen. Gainera, argi geuekan omenaldien asunto hori guztia

kultur taldeek eraman behar zutela, guk atzean geratu behar genuela baina, era berean, gure plazak ez zuen izenik eta guk izatea nahi genuen eta Jose Mari-rena izan dadila. Argi utzi nahi genuen gu ez ginela aldaketa horrentzat oztopo izan nahi, are gutxiago, guk horren bultzatzaile izan nahi genuela», azaldu zuen Arrizabalagak.

«Jende guztiak, gutxi gora behera eza-gutzen dugu han edo hemen sartuta zegoelako baina ,hortik aparte, nire kasuan, hori baino gehiago, oso harreman ona nuen bizilagun bat bezala gogoratzen dut. Zerbait egin behar zen bakoitzeko han zegoen, beti abegikor. Beti oso harreman ona izan nuen», gaineratu du Begoña Meiro bizilagunak.

Gauzak horrela, ekitaldi xume batekin, eta beti ondoan izan duen Ana eta bere oinordeko egokiena den Ander oso go-goan zituztela, Jose Mari Lasa izena jarri zioten euren etxe aurreko plazari bere bizilagunek.





# Eguberri arduratsuak



**Birziklatutako materialak eta eguzki plakak erabiliz, herritar talde batek egin ditu aurtengo gabonetako apaingarriak**

**Kaixo *urretxu* !**

Urrutxuko Udal Aldizkaria